## Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
## *Memoria Departamento Programa - GASTOS*

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **21. Erakundeen Arteko K*onpromisoak*** <br> **21. *Compromisos Institucionales*** | **00**. Erakundeen Arteko Konpromisoak <br> **00**. *Compromisos Institucionales* | **910.101** Erakundeen Arteko Konpromisoak <br> **910.101** *Compromisos Institucionales* |

Aholkularitza Ekonomikoak kudeatzen dituelarik, ondokoak dira programa honen helburuak:

- Bizkaiko Lurralde Historikoak Estatuari ordaindu behar dion kuota zehaztea, oinarritzat Kupoari buruzko Bosturteko Legean ezarritako metodologia harturik.
- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Erakundeei Eusteko Ekarpenak zehaztea, indarreko Ekarpenei buruzko Legearekin bat etorriz, eta horiek lurralde historikoen artean banatzea.
- Kupoa Estatuari ordaintzeko proposamenak formalizatzea.
- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoarentzako Ekarpenak ordaintzeko proposamenak formalizatzea.
- Ekarpenei buruzko indarreko Legean ezarri den Egokitzapenerako Funts Orokorraren zenbatekoa zehaztea eta horren oinarria diren Arauen Ezberdintasunen eta Kudeaketaren txostenak gertutzea.
- Beharrezkoa denean, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoarentzako Ekarpenak luzatzeko proposamenak formalizatzea.
- Zerga hitzartuen bilketari buruzko informazioa argitaratzea hilero, Eusko Jaurlaritzak, beste foru aldundiek eta Estatuak horren berri izan dezaten.
- Hiru hilean behin informazioa ematea BEZaren eta zerga berezien bidez biltzen denari buruz, zerga horiek direla eta Estatuarekin eta beste foru aldundiekin egin behar diren doikuntzak zehaztu ahal izateko.
- Estatuari Zerga Bereziengatiko Doikuntza dela-eta dagokiona ordaintzea.

Gestionados por la Asesoría Económica, los objetivos del programa se concentran en:

- La determinación del Cupo a pagar al Estado por el Territorio Histórico de Bizkaia, en base a la metodología establecida en la Ley Quinquenal de Cupo.
- La determinación de las Aportaciones para el sostenimiento de las Instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco de acuerdo con la Ley de Aportaciones vigente, así como su distribución entre los Territorios Históricos.
- Formalización de las propuestas de pago de Cupo al Estado.
- Formalización de las propuestas de pago de las Aportaciones a la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- La determinación de la cuantía del Fondo General de Ajuste previsto en la vigente Ley de Aportaciones, así como la elaboración del Informe sobre Diferencias Normativas y de Gestión que le sirve de base.
- Formalización, si fuera necesario, de las propuestas de aplazamiento de las Aportaciones a la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Emisión de la información mensual sobre recaudación por Tributos Concertados para su información al Gobierno Vasco, a las otras Diputaciones Forales y al Estado.
- Emisión de la información trimestral sobre recaudación por IVA e Impuestos Especiales, para la determinación de los Ajustes con el Estado y con Diputaciones Forales, por IVA e Impuestos Especiales.
- Formalización, si procede, del pago al Estado del Ajuste por los Impuestos Especiales.

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **21. Erakundeen Arteko K*onpromisoak*** <br> **21. *Compromisos Institucionales*** | **00**. Erakundeen Arteko Konpromisoak <br> **00**. *Compromisos Institucionales* | **910.101** Erakundeen Arteko Konpromisoak <br> **910.101** *Compromisos Institucionales* |

- Balio Erantsiaren gaineko Zergaren bidez bildutakoaren doikuntzagatik foru aldundiek egin beharreko ekarpena ordaintzea, EAEko 2007-2011ko aldiko ekitaldietako aurrekontuak finantzatzeko foru aldundiek egin beharreko ekarpenak finkatzeko metodoa onetsi duen Legean ezarritakoaren arabera. Metodoa arautegi berria onetsi arte luzatu da.
- Formalización del pago del Ajuste a la recaudación de las Diputaciones Forales por el Impuesto sobre el Valor Añadido previsto en la Ley por la que se aprueba la metodología de determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los Presupuestos de la CAPV para los ejercicios 2007-2011 (prorrogada hasta la aprobación de nueva normativa).

- Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien bidez bildutakoaren doikuntzagatik foru aldundiek egin beharreko ekarpena ordaintzea, EAEko 2007-2011ko aldiko ekitaldietako aurrekontuak finantzatzeko foru aldundiek egin beharreko ekarpenak finkatzeko metodoa onetsi duen Legean ezarritakoaren arabera.
- Formalización del pago del Ajuste a la recaudación de las Diputaciones Forales por Impuestos Especiales de Fabricación, previsto en la Ley por la que se aprueba la metodología de determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los Presupuestos de la CAPV para los ejercicios 2007-2011.

- Hidrokarburoen Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren bidez bildutakoaren doikuntzagatik foru aldundiek egin beharreko ekarpena ordaintzea, EAEko 2007-2011ko aldiko ekitaldietako aurrekontuak finantzatzeko foru aldundiek egin beharreko ekarpenak finkatzeko metodoa onetsi duen Legean ezarritakoaren arabera.
- Formalización del pago del Ajuste de la recaudación de las Diputaciones Forales por el Impuesto sobre Ventas Minoristas de Hidrocarburos, previsto en la Ley por la que se aprueba la metodología de determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los Presupuestos de la CAPV para los ejercicios 2007-2011.

- Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak berariazko xedeetarako sortutako erakundearteko funtsei buruz (Berrikuntza Funtsa, Proiektu Estrategikoen Funtsa) emandako erabakiak betetzea.
- Cumplimentación de acuerdos del Consejo Vasco de Finanzas Públicas en relación a fondos interinstitucionales creados para fines específicos (Fondo de Innovación, Fondo de Proyectos Estratégicos).

- Gobernu Kontseiluak Udalkutxaren urteroko likidazioari dagokionez hartzen dituen erabakiak formalizatzea.
- Formalización de los acuerdos del Consejo de Gobierno sobre la liquidación anual de Udalkutxa.

- Gauzazko ondasunen bilketaren erregistroa mantentzea eta eguneratzea, eta Eusko Jaurlaritzako Zerga Koordinaziorako Organoari erregistro horretan urtean gertatutako alten eta baxen berri ematea, urteko ekarpenen likidaziorako kontuan hartzeko.
- Mantenimiento y actualización del Registro de Recaudación de Bienes en especie, y comunicación anual al Organo de Coordinación Tributaria del Gobierno Vasco de las altas y bajas en el mismo, a fin de su consideración en la liquidación anual de Aportaciones al Gobierno Vasco.

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
| --- | --- | --- |
| **21. Erakundeen Arteko K*onpromisoak*** <br> **21. *Compromisos Institucionales*** | **00**. Erakundeen Arteko Konpromisoak <br> **00**. *Compromisos Institucionales* | **910.101** Erakundeen Arteko Konpromisoak <br> **910.101** *Compromisos Institucionales* |

- Toki korporazioek itundutako zergen ondorioz biltzen den diru kopuruan duten partaidetza likidatzeko bete beharreko zerga-ahaleginari buruzko inprimakiaren eredua prestatzea, izapidetzea eta Ekonomia eta Ogasuna Ministeriora bidaltzea.
- Itundu gabeko zergen bidez biltzen den dirua dela eta udalei eta foru aldundiei egiten zaizkien konturako sarrerei eta likidazioei buruzko informazioa kudeatzea eta ematea.
- Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak eta Kontzertu Ekonomikorako Batzorde Mistoak hartzen dituzten erabakiei buruzko datu basea mantentzea eta eguneratzea.
- Hartu diren obligazioak zehazteko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa biltzea eta erakundeen konpromisoengatiko ordainketen proposamenak egitea.
- Kontu orokorrari buruzko urteko txostena eta sei hilean behin Erakundeen Arteko Konpromisoen Atalak aurrekontuko gastuaren gauzatzeari buruzko txostena Batzar Nagusientzat.
- Foru Aldundiak hainbat kontzeptugatik (ongintzako kirol apustuak, Europako funtsak, bidegabeko sarrerak, etab.) jasotzen dituen transferentzien inguruko informazioa izapidetzea eta ematea.

- Elaboración, tramitación y envío a la delegación territorial del Ministerio de Economía y Hacienda, del modelo de impreso a cumplimentar por las Corporaciones Locales en relación con el esfuerzo fiscal, para calcular la liquidación de la participación de los municipios en los ingresos por Tributos Concertados.
- Gestión y comunicación de la información relativa a entregas a cuenta y liquidaciones a Ayuntamientos y Diputación Foral, correspondiente a ingresos por Tributos No Concertados.
- Mantenimiento y actualización de la Base de Datos sobre acuerdos del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, y de la Comisión Mixta de Concierto Económico.
- Recopilación de la Información Financiera y Presupuestaria para la determinación de las obligaciones contraídas y la elaboración de las propuestas de pago de los Compromisos Institucionales.
- Informe anual de la Cuenta general e Informes semestrales a las Juntas Generales sobre ejecución del gasto presupuestario de la Sección de Compromisos Institucionales.
- Tramitación y comunicación de la información por trasferencias recibidas por la Diputación Foral en conceptos varios: apuestas deportivo benéficas, fondos europeos, ingresos indebidos, etc.